

Antxiñako fotografixia



Txarri-hilttia



ale-kalian, nasai asko, kotxe-traba haundi barik hiltten zittuain orain dala hamarkada gutxi **txarrixak**. Baserrittan be bai, baiña han beste postura batera egitten euen. Egun haundixa izaten zan txarri-hilttiarena baserrixan, urtian behingua lekuri gehixenetan. Umientzat fiesta lakotxia zan; emakumiai lana ekarten osten galanki: odolostiak eta mortzillak egin, txorixo-masia gertatu, aldeko eta seniden artian txarri-puskak partiau, etab; gizakumiai, oster, txarrixa hiltten, garbiketana eta azala erreten zeregin dezente euki arren, illunkaran **txarrafaixa** asmaitten euen, bapo jan-edan ondoren, egunari akaberia jai-giruan emuteko. Oraintxe, zemendixan batez be, San Martin aldera, ilbeheran, akabaitten zittuain hainbeste estimaitten ditugun belarriuziok.

Kalekumiai giñanok, baserrixetan parientiak izan ezik, nekezago ikusten geben halakorik. Baiña ez pentsau guri be antzerako ikuskizunekin ondo pasaitteko aukerak falta izaten xakunik. Izan be, herri-kaskuan be makinatxo bat **kale-baserri** eguen orduan: Kale Zaharrian, Kanpantxon, San Antue kalian, Mendiko kalian, Santa Marinaran, Auzotxon, Lekunbarrin edo San Juan kalian. Kale-baserrittan behiren bat edo beste hazten zan esnetarako edo lanerako, eta txarrixa be bai, jakiña. Eta gaiñera karnazerixak be bagittuan kalian: Rodrigo, Juan Mari, Reyes, Bellotzatarrak, Migel **karnazeruak**, adibidez. Harakiñok San Juan kaleko mataderixan hiltten zittuain ganaduak, eta txarrixak be bai askotan; baiña batzuetan euren karnazerixa inguruetan be egitten zittuain txarrixen azkeneko patrifiliuak. Horregatik, edade batetik gorako kaletarrok be ezagutu dogu txarri-hilttia eta erretia.

Argazkixan ikusten dozen lez, Atzeko kaleko plazuelan dihardu laukote horrek, inddarka, langintza horretan. Ezkerretik eskumara: Migel **Plazaola** karnazerua, kuxillua eskuan dakola; txarri gizarajuari eusten, Kajo **Urzelai** zapatarixa; Bixente **Txintxurreta**, kazari eta peskarixen **Goixenetxe** dendakua; eta Manolo **Alvarez**, **Galicia** tabernakua. Kale horretan eta Oñati guztian ondo ezagunak ziran artisaumerkatarixak laurak. Migelek hortxe bertan, Naparrenoko kantoian eukan karnazerixa eta beste hirurak be urrin barik zittuain euren negoziuak. Fotografixia 1960-1961 ingurukua izango da, seguru asko.

J. E.